

ESKOLA-KIROLEKO MONITORE LAGUNTZAILEAREN IKASTARO OFIZIALA

(1.MAILAKO ENTRENATZAILE IKASTAROKO BLOKE KOMUNAREN BALIOKIDEA)

ESKOLA-KIROLEAN TEKNIKARI-LANAK EGIN AHAL IZATEKO ADIERAZITAKO IKASTARO OFIZIALA. 60 ORDUKO URRUTIKO PRESTAKUNTZA-IKASTARO BAT DA, LEHEN SOROSPENEI, PORTAERAREN OINARRIEI, KIROLARI ETA DESGAITASUNARI ETA KIROL-ANTOLAKETARI BURUZKO EDUKIEKIN.

JARDUERA MOTA: Kurtsoa.

KIROLAREN ALORRA: Kirol teknikarien prestakuntza.

HARTZAILEAK: Prestakuntzarik gabeko eskola-kiroleko teknikariak. Kiroleko prestakuntza profesionala hasteko interesa duten pertsonak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Izen emate orria. **(deskargatu)**
- Baimen informatua. **(deskargatu adinez nagusiak) (deskargatu 18 urtetik beherakoak)**
- NANaren fotokopia, bi aldeetatik.
- DBH gainditu izanaren ziurtagiria edo baliokideak. QR kodea duen ziurtagiririk izan ezean, aurkezten den dokumentua konpultsatua izan beharko da. Non konpultsatu: ikusi hemen.
- Izena eman dutenek, gainera, zinpeko aitortpen bat aurkeztu beharko dute, kirol-titulu ofizialik ez dutela adierazteko. **(adibidea)**
- Matrikula ordaindu izanaren ordainagiria. Bankuko ziurtagiria.

SARBIDE FROGRAREN EGUNA ETA ORDUA: otsailak 12, 13 eta 14. **(IKUS ERANSKINA)** Miribillako Kirol Etxea – Bilbo Martin Barua Pikaza kalea, 27 behea. Matrikulatzeko momentuan adieraziko zaizue ordu zehatza.

ONLINE IKASTAROAREN HASIERA: Otsailak 17. Ikasleak mezu elektronikoko bat jasoko du ikasturtearen hasieran, plataformara sartzeko.

HIZKUNTZA: Euskaraz (gaztelaraz egiteko aukera 45 urte eta urtetik gorako pertsonentzat, izena emateko momentuan).

IZEN-EMATEAK: Azaroaren 10etik 25era (biak barne).

monitoreak@asfedebi.eus helbidera bidali beharko da aurkeztu beharreko dokumentazio guztia.

- OHARRA: QR koderik ez duen DBH gairiditu izanaren ziurtagiria edo baliokidea dutenen kasuan, dokumentu konpultsatua aurrez aurre aurkeztu beharko dute gure bulegoan.
- HELBIDEA: CAED KIROL-TEKNIKRIEN ESKOLA ASFEDEBI KIIB (Martin Barua Picaza 27, behea, 48003 Bilbo (Bizkaia). Orduetgia, astelehenetik ostiralera 9etatik 14etara eta 16etatik 19etara.

• Izen-emate prozesuarekin egon daitezkeen zalantzak argitzeko: 944037800 telefono zenbakian edo **monitoreak@asfedebi.eus** helbide elektronikoa. Izena emateko azken eguna: 2020/11/25

TOKI KOPURUA: 350 (35 pertsona talde bakoitzean).

PREZIOA: 50€ , Asfedebiren kontu zenbakian ordaindu beharko da:
ES70-2095-0360-10-9117551621 (Kutxabank). Kontzeptuan izen abizenak jarri.

ERANSKINA SARRERA FROGAK

1) LOKOTX BILTZEA: 1, 25 metrora jarritako 10 lokotxak jasotzea, saskiratzeko orduan, metro bateko gutxieneko distantziatik jaurtita. Gutxienez 4 lokotx sartu. Proba lasterka egin beharko da. 3 aukera, probaren marka minimoa egin ahal izateko. Proba minutu bat baino gutxiagoan egin beharko da.

2) AUKERATZEKO:

A) Zaku Eramatea: 15kg-ko zakuarekin 20 metroko 3 untze. 3 aukera probaren gutxieneko marka egin ahal izateko. Proba minutu bat baino gutxiagoan egin beharko da.

B) Txinga Eramatea: 15kg-ko txinge-kin 20 metroko 3 untze egin txingak lurrera erori gabe. 3 aukera, probaren marka minimoa egin ahal izateko. Proba minutu bat baino gutxiagoan egin beharko da.

WWW.ASFEDEBI.EUS

